# ARTEA. Quercus Ilex L.

Aritzen familiako zuhaitza dugu hau. Altueran 25-30 metrotaraino iritsi daiteke. Bere enborra lodia eta askotan okertua da. Azala berriz gogorra eta zartatua izaten du. Bere hostoak, aritzenak ez bezala gogorrak eta iraunkorrak dira. Udaberrian zehar loratzen da eta bere fruitua, EZKURRA udazken aldera heltzen da.

EZAUGARRI EKOLOJIKOAK

Poliki hasten dira eta bizi luzea duten espezieak dira; hori horrela izanik, gizonaren mesprezioa jasan izan dute; honek beti honen ordez haziera azkarrekoa beste espezieak nahiago bait ditu.

Lur harroak, ondo drenatuak eta hi doirik gabekoak hobekiago izaten dituzte, substratu, kareatsu, hareatsu, edo ezpondetan kokatzen delarik.

Fruituak, ezkurrak alegia, animali askok oso estimatuak dituzte oinarrizko janari bait dira. Bere egurra gogorra eta astuna da, baina lehortzean bihurritu eta pitzatu egiten da, eta horregatik ez du estimazio haundirik. Sutarako ordea oso preziatua da.



KOKAPENA

Espezie hau, bereziki Mediterraneo aldean izaten da. Klima arina behar dute, izotz gutxikoa. Hori dela eta, Euskal Herrian Kantauriruntz Nafarroako erditik Mendebalde aldera eta oro har Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako zenbait haranetan topa dezakegu.

Lezo inguruan, zuhaitz honen ale bakar batzuk besterik ez dira geratzen. Hauek Jaizkibel mendiko hegoaldeko maldan topa ditzakegu (Bonatxo eta Epertxoko inguruan...). Landare gazteak berriz Epertxokon egindako berlandaketetan topa ditzakegu.

Lezoko Ekoloji Taldea.